

www.noaia.com

N u !



Has dadila sagardo festa!



Matrikulazioa egiteko garaia iritsi da

ALKARTASUNA KOOPERATIBA

Hemen izango dituzu trafiko araudi
berriaren arabera
erabili beharreko
txalekoak:



Baita ere lanerako
erropa:

- Seguridadeko botak,
bota normalak, zapatillak...
- Lanerako uretako trajeak
- Forro polarrak, txalekoak...




Ugarte Industrialdea, 12 - Telf: 943 36 11 14
E-mail: alkartasuna@fcae.org

www.noaua.com

Informazio interesgarriena gure web guncan

[gaurko iragarpena](#)



Eguraldi iragarpena, lan merkatua, hemeroteka,
agenda, albisteak, inkestak, foroak, osasun zerbitzua
NOAUA! aldezkarria...

USURBILGO HAUR ESKOLA



Haur hezkuntzarako 1^{go} zikloa
0-3 urte bitarteko haurrei zuzendua

NON

Kalexar

ORDUTEGIA

7:30etatik 19:00etara

EGUTEGIA

Astelehenetik ostiralera

Irailaren hasieratik Uztaila bukaera arte

INFORMAZIOA ETA IZENEMATEA

Izen ematea: Martxoaren 1-5era, Haur Eskolan
eta 16:30tik - 19:00etara

Haur eskola ezagutu eta informatzeko eguna:

Otsailaren 23an arratsaldeko 7tan

Telefonoa: 943 37 40 61



ZERBITZU PEDAGOGIKOA



JANTOKIA



OSASUN HEZIKETA



ELIXABURA



EKIMEN BEREZIAK

Txirrikitutik



Argazkia: J.A. Lasagabaster. 1985. urte ingurua, Atxegalde.
Jabetza: Luis Arnaiz.

Duela 20 urte inguru Atxegalden auzo elkarte bat zegoen, Atxegaldeko

Auzo Elkarte hain zuzen ere, eta elkarte bezala hainbat urtez ekintza desberdinak antolatu zituen, batez ere auzotarrei zuzendua: bidaia, jaiak, antzerkiak, umeentzako ekintzak,... Elkarte bizirik mantendu zen urteetan giro polita egon zen auzoaren alde elkarlanean aritzeko ilusio handia jarri zuten auzokideei esker.

Ondoko argazki hau 1980. urteko Atxegaldeko jaietan atera zuen J.A. Lasagabasterrek. Auzoko jaiak zirela aprobetxatuz, Kaleberritik Atxegalera doan bide berriaren, Alperroburu kalea hain zuzen ere, inaugurazioa ospatu zuten. Ekitaldia Atxegaldeko Auzo

Elkarteak antolatu zuen, umore puntu bat jarritz. Bertan, auzo elkarteko zenbait kide, traje ilun, gorbata eta txapel dotoreekin ageri da. Argazkia zinta moztzen duten uneko da. Hona hemen irudiko protagonista izenak: Juanjo Elkoro, Aingeru Orbegoza (auzo elkarteko lehendakaria), Agustin Gorriti, Luis Arnaiz, Eugenio Noriega eta Patxi Seguro. Ekitaldia doinu finez alaitzen, hirukote paregabea aritu zen: Joseba Aierbe, Jakoba Errekondo eta Joseba Tapia (atzean ageri dira).

Tamalez, gaur egun Atxegalden ez dago auzo elkartetik baina tarte horrelakoak gogora ekartzen baditugu, orduko oroitzapenak bizirik mantenduko ditugu bederen.

Zalao Arnaiz Ibarguren

OHARRA: Udal fototeka herritarren zerbitzura dago eta horretarako ateak zabalik ditugu bertako funtzionamendua ezagutzeko, argazkiren bat ikusi edo eta eskatzeko, herriko argazki zaharren bat udal fototekara digitalizatzera ekartzeko... Jar zaitez udal fototekarekin harremanetan, udaletxeko 2. solairuan gaude (9'00etatik 14'00etara). Telefonoa 943 371951 eta e-posta: fototeka.usurbil@udal.gipuzkoa.net

Garai bateko argazkien bidez gure herria ezagutzeko aukera izango duzu. Anima zaitez!

N u !

Argitaratzailea : Noaua! Kultur Elkarte

Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02

elkartea@noaua.com

erredakzioa@noaua.com

publizitatea@noaua.com

Web orria: www.noaua.com

Kazetarien koordinatzailea: Imanol Ubeda

Publizitatea: Jon Rueda

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Oskar Santamaria, Maria Angeles Arruti, Maria Jesus Urbiet, Jone Eizmendi, Ekiñe Olaizola, Iñaki Labaka, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Ana Urdangarin, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Eneko Harreguy, Salome Portu, Pello Aranburu, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Aloña Pulido, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Iñaki Agirresarobe. Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkidetza: Aitziber Aranberri

Erredakzio Kontseilua: Imanol Ubeda, Jon Rueda, Zalao Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamaboskariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:
10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

Aurkibidea

ZUTABEAN, AITOR LANDALUZE **4. URR.**

BERRIEMAILEAK KALEJIRAN **6. URR.**

SAGARRONDOTIK, PIL-PILEAN **10. URR.**

MATRIKULAZIO GARAIA DA **12. URR.**

Udarregi Ikastola, AEK
euskaltegia, Haur Eskola...
Matrikulazio garaian dira.



HEMEN DA ASTEON ALDIZKARIA **15. URR.**

HOLLYWOODEKO IZARRAK INAUTERIETAN **16. URR.**

ESKUBALOI SENIOR TALDEA, KOPAN **17. URR.**

SANTA AGEDAKO KOPLAK NOAUA! TXIKIN **18. URR.**

1954KO KINTOEN BAZKARIA **22. URR.**



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak diruz
lagundutako
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

AZALA

Bazkaltzen harrapatu genituen Haur Eskolako ikasleak.

Zutabea !



AITOR LANDALUZE

Ihauteriak

Gure sukaldean zintzilik dugun baserri-egutegiak, ihauterien etorreraz ohartzean, bidea irakasten duten maisuetako baten elkarritzeta gogora ekarri dit. Bera Ioar Errepublikakoa da eta hango herri bateko plaza batean ginen, ihauteri gau batez orain dela urte batzuk. Zanpantzar mozorroaz jantzita zegoen eta bere ohiko seriotasun eta sakontasuna erabiliz, ospakizun hauetaz horrela mintzatu zitzaidan:

“Hasiera batean neguaren iluntasunari eragindako garaipen bezala ospatzen zen. Negu gorri luzean sufritutako beldur eta oinazeen eragileaz libratzeko, ospakizun handiak egiten zituzten, benetako liberazioak izatera iritsiz. Geroago, naturatik ihes egin ahala, eguneroko bizimoduan, beldurtzen eta estutzen dutenen aurkako trufazko ospakizuna bihurtuz joan zen. Horrexegatik ere, askotan debekatua izan da, beldur eragile horiek umore gabekoak bai dira.

Gaur egun ere, bi eragile horiek diraute ihauterien muinean; eragile bakoitzaren eraginaren proportzioak ondorioztatzen du, lekuz lekuko, ihauteri errepresentazio desberdintasunak. Hauexek dira beraz, pertsona-elkarte horrek pairatzen dituzten beldur estutasun eta bizi nahiak ulertzera eramanean

gaitzaketenak.”

Nik ez nuen erantzun. Nahikoa nuen entzundakoak ordenatzen, beraz isiltasunaz baliatuz, hitz egiten jarraitu zuen.

“Dena den, nik bestelako ihauteria eskertuko nieke gaur egun agintzen eta estutzen duten zein gaitzutei. Modernitatearen (modernitatea hitza bekain keinu baten bidez azpimarratu zuen) azken maila! Mozorroa jantzi beharrean mozorroak kentzea, egunero erakusten digutena erantzi eta gure aurrean biluztu. Horrela, egunero beldurtzen eta estutzen gaituenaren benetako aurpegiak, gutxienez urtean lau egunez ezagutzeko aukera edukiko genuke. Guztiz terapeutikoa izateaz gain, egungo errealtatea ulertzen lagunduko luke; ...ba delakoa; ...gotzainen harreman pertsonalen inguruko teori modernistak; ...demokrazia santua; ...ezkerra; eskuina... eta baita poltsa eta politika ere!

Azkeneko hori gehitxo iruditu zitzaidan eta “Bai zera” ahul kaxkar bat besterik ez nion erantzun; berak ez entzunarena eginez eta bere azken hitzek izan ohi duten malenkoniaz...

“Sikiera; errealtatea, mozorro pila desberdinak gordetako aurpegi bakarra, gizaki miserablea, dela ezeztatzeko.”

Ika-mika !

Informazioaren alde beti, gezurrarekin inora

Asko idatzi dut, esan dituzuen gezurak argitzen saiatu asmoz. Debalde. Borradore guztiak luzeegiak dira eta gutxi argitzen dute.

Zuen etxean 5 urte, bizi dudanarekin eta beste motako injustizia sozialekin sufritutakoekin liburu bat atera daiteke.

Gainera, egin duzuen mina eta nere arazoak ez dira konpontzen zuen mailan jarrita. Ezta bide judiziala hartzen, nahiz eta jende askok animatu nauen, eta noski, egina dagoela holako kasutan egiteko dagoena.

Orduan, zikinkerei buruz, badago jen-

dea esateko nola zegoen egitan nere etxea zena eta edozein dago gonbidatuta nere etxe berrian kafetxo bat hartzera, ia zeozer berezi ikusten duen. Ezin dut ulertu, ni atera nintzenetik bi egun eta gero, nola iritsi zen egongela egoera horretara.

Diruari buruz, inoiz ez dizut ezezkoa erantzun. Konsziente eta erresponsable naiz egoera pertsonal larri batek utzi dituen arazoak konpondu egin behar direla. Baina zuek, era penagarrian, gauzak bukatu asmoz, aspaldian nere abokatuak egin zuen eskeintzari mezperezua egin zenioten.

Dirua nire faborez? Bai. Ahaztu egin duzue jabeek betebeharrak batzuk dituztela? Zergatik kargatu behar izan ditut nere bizkarrean eta nere poltsikoan Repsolen errebisioak, kainerien konponketak, seguroak, betiko xaguak kentzea eta abar?

Motza nola erori zara hain baju?

Espero dut gauzak hemen gelditzea eta pertsona artean gauzak konpontzeko bide normalak bilatzea. Hori izan da beti nire asmoa.

Ana I. Flores Rolin

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK ONARTU BERRI DUGUN ARAUDIA BETE BEHARKO DU.

HALA EZ BADA, NOUA!k IDATZI HORI EZ ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU.

NOUA!k ez du bere gain hartzen **IKA MIKA** atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: martxoak 5. Idatzia ekartzeko **azken eguna:** Otsailak 27.

e-posta bidez: erredakzioa@noaua.com

Otsailaren 24ko plenotik pasako da aurtengo aurrekontu-proposamena

Normalean, urte hasieran onartu ohi dira udal aurrekontuak. Nahiz eta salbuespenak ere badiren, hori da garai idealena. Usurbilen, aldiz, otsailaren 24ko ohiko plenoan mahairatuko dira 2004ko aurrekontuak. Luis Mari Ormaetxea alkateak arrazoitu digu prozesu honen atzerapena. Datorren alean, gainontzeko alderdien balorazioak bilduko ditugu.



OTSAILAREN 24KO PLENOAN
AZTERTUKO DIRA AURREKONTU BERRIAK.

Usurbilen zergatik atzeratzen ari da 2004ko aurrekontua?

Hiru dira nagusiki arrazoiak. Lehen. Legealdi honetan udal antolaketa berri-
tu dugu eta horrek eragin zuzena du aurrekontuan, partida berriak sortuz eta beste batzuk berrantolatuz.

Bigarrena. Aurreko udal gobernuarekin ez da posible izan era normalizatu batean informazio trukaketa bat gauzatzea, eta beraz, apurka apurka joan gara jakiten lehendik zeunden konpromisoak zeintzuk ziren eta hauek etorkizunean duten inpaktoa.

Hirugarrena. Aurrekontu hauek ahalik eta adostuenak izaten saiatu gara. Bakoitzak beren interesak azaldu ditu eta akordiotara iristea kostatu zaigu.

Beste alderdiekiko hartuemanak nolakoak izan dira? Elkarlanerako jarraera sumatzen al duzu?

Oposizioko alderdi guztiek aurrekontuetan parte hartzearen interesa azaldu dute. Hori positiboa izan da, nahiz eta prozesua luzatu. Azkenean, guztien nahiak ezin izan dira gauzatu baina udal ordezkariak zabal batenak bai.

2004ko jarduerarako zeintzuk izango dira "proiektu izarrak"? Non xahutuko zenuke inbertsioetarako diru-partida?

Xahutu hitza ez da egokia diru publikoaren erabilera desegokia aditzera ematen baitu.

Aurrekontua azken urteetan osatu den garrantzitsua da (ia 2000 miloi pezeta). Horrek gauza asko egiteko aukera ematen du; hemen esanguratsua: Atalluko enpresariak lurrengatik zor dutena ordainduko dute hasierako jabeek, Zubietako pilotalekua bukatuko da, Zubietako babes ofizialeko etxebizitzak eraikiko dira, Kultur Etxe berria bukatu eta hornitu, Potxonea eraikina berri eta hornitu, Udaletxea eraberrituko da, San Inazio kalea eta glorieta berria, Arratzaingo ur depositora Añarbeko ura eramango da, Ikastolan (Agerialde) igogailu berri bat jarriko da, Santueneatik Berritzagoienera bidea argizatuko da, Kiroldegian hainbat berrikuntza, proiektu berriak idatziko dira: Zahar Egoitza, Musika Eskola...

UDALTZAIN POSTURAKO LAN-DEIALDIA

Otsailaren 23an amaituko da udaltzain postura aurkezteko epea. Euskarazko 3. hizkuntza-eskakizuna da betebeharreko baldintzerako bat. Informazio gehiago Udal Erregistroan (943 37 14 93).

GARBITZAILEA BEHAR DA

Eraikuntza publikoak garbitzeko lan-poltsa osatu nahi du Udalak. Izena emateko epea irekita dago. Udal erregistroan jasoko duzu informazio gehiago. Lan-poltsarako aukeratuak diren langileen zeregina hau izango da: udal eraikinak garbitzea, zerbitzuaren arduradunak emandako erizpideak jarraituz, Udalak jarritako ordutegiaren arabera.

KONTRIBUZIOAREN INGURUKO HOBARIA

Kontribuzioaren zergari dagokionez, familia ugariak %50eko hobariak baliatu daitezke.

Familia ugariei %50eko salbuespena.

Subjeto pasiboak familia ugarien titularrak direnean, eskaera egin beharko dute udaletxean. Eskaerarekin batera, familia ugarien titulu eguneratua aurkeztu beharko dute, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintza zerbitzuak luzaturikoa, hain zuzen ere. Interesatuak, titulu eguneratua izapidetu gabe duten kasuan, Donostiako Intxaurrondo auzoko Txara 1 egoitzara zuzendu beharko dute lortzeko.

Hobariaren eskaera eta aipatu titulua aurkezteko epea: 2004ko martxoaren 15era bitartean. Interesatuak epea amaitu ondoren eskaera egiten duten kasuan, hurrengo urtetik aurrera izango du eragina.

Kale Nagusia, 10
Tlf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Ojandegia - Gozategia

LABE-GOXO

Urtinea

L r k - L r l n r k

L r s r l k - K r k

San Esteban
Tlf.: 943 36 22 55

Zure publizitatea Noaua!-en
agertzea nahi baduzu
jar zaitez gurekin kontaktuan:
943 360 321 telefonoz eduta
679 471 831 mobilera deituz.

Korreo elektronikoz ere jar
zaitezke gurekin kontaktuan:
publizitatea@noaua.com



AITOR
ALKORTA

Txokoalde

Bazterrik bazter, zulorik zulo

Erroizpeko erreka zulo bazter ospel den pasabide hontan, maaaakiñat pasaizo izandako lekuba izango den, noski, ezkutuko arrantzaleak, udako beroei ihesi preskatzeko asmoz txapuzoi bat hartzera joaten direnak "ilegalki", bikoteak, bakardadearen usainean...

Garai batean, senargai maitemindu erromanitikoren batek, geroxeago zeuden landare bibe-roetara ere egingo zuen bisitaren bat, garai hontan loratzen den kamelia landarerik ba ote zegoen begiztatzeraz, ostu eta gero bere panpoxari joan den larunbateko (San Balentin) egunez bere loreak oparitzeko.

Aurrena kamelia bat oparitu eta kamelia oparitzuz kamelatu, seda lantegiaren paretatzarretan gorderik xirri batzuk eitteka... Ah! Ta lanak bukatu ondoren lehor txamar baleude eztarriak, Galone parian gora Andatzako bidea hartu ta hortxe den Bordatxuriko itturria, behar den bezala hidratatu eta indarberritzeko. Behin

asuntuba, one-netik ateratzen denean, gain-bera hartuko den, Goiko Errotatik bera, zentraletik aurrera, Etxe Alai goikaldean dagoen frontoiraino.

Indarrik geratzen bada, partidutxo bat bota eta aurrera, bestela Simoneneako trenpasuan geldialditxo bat egingo dugu, ikusiaz zenbat neska mutil, aitton amon, senar emazte, eta zakur pasatzen diren, denak ere, paraisuko airiak hartzera datozenak.

Bejondeizuela!



IÑAKI
AGIRRESAROBÉ

Kaleberri

Usurbil Nafarroa zenekoa


Hainbat esamesa esan diren arren, liburuek, historialariek eta batez ere Tomas Urtzainkik, Nafarroa osoa hartzen zuen eremua handia zenaren testigantzak baieztatzen dituzte. VIII. mendean gaur egungo zazpi herrialde, Errioxa, Burgosko eta Biarnoko zati handiez osaturik zen Erresuma, bere errege eta aginte juridiko jakin batekin.

Gaur egungo Gipuzkoan Hernani izan zen izendaturiko lehendabiziko herria. Donostiak Iltzurun zuen izena eta Hernaniko auzo bat zen 1158. urtera arte, data honetan herri izaera eman baitzion Nafarroa Erresumako Antso Azkarrak. Beraz, eremu honetan gaur egungo Usurbilgo lurak zeuden, baina herri izaerarik eman gabe. Gure herriaren izendapena 1371.urtean izan zen Señorío de Belmont ize-narekin eta hau Gaztelako Enrike II Erregeak egin zuen, dagoeneko Gaztelako Erresumaren menpe baitzegoen.

Nafarroako Erresumaren datarik garrantzitsuenak 1200.urtea izan zen Gasteiz menperatu baitzuen Gaztelako Erresumak 8 hilabeteko guda bortitz

baten ondorioz. Data horretan gaur egungo Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako lur eremuak galdu ziren, hau da, Nafarroako zati garrantzitsu bat. Gazteizen Nafarroako Martin Ttipia agintariak ezin izan zion setioari aurre egin.

Datu esanguratsu bat aipatzeko ere Donibane Garazi, Iruñea, Gasteiz eta Donostia Nafarroako Erresumako erregeek izendatu zituztela. Bukatzeko, Errioxako Najeran (euskaraz Naiara) lau errege nafar daude ehortzirik eta Burgoseko Oñan beste hainbeste.



Katuak... eta kontu serioagoak

Kaixo denoi berriro ere! Otsaila iristearekin batera, kronika idazteko momentua ailegatu zait, beti bezala nik espero nuena baino goizago.

Urteko bigarren hilabete honi, beste izen ugari-
ren artean, katu hila ere deitzen zaio, eta Kalezarren nabarmen da zergatik. Urte sasoi honetan sekulako marruak eta miauak entzun ohi dira, gehienbat gauerditik aurrera. Askotan, katuek ateratzen dituzten hotsak haur jaio baten negar zotinekin erraz nahastu daitezke, benetan fenomeno kurioa da eta tarteka entzuten jartze-
ko pazientzi apurra hartzea merezi duena gainera.

Egia esan, gure hauzoko katu "populazioa" zen-
baterainokoa den ikusita, horrelako musika em-
naldiak maiz entzutea ez da batere harritzekoa. Kalezarren dauden katuak errolda egiteko orduan kontuan hartuko balira zalantzarik gabe Kalezar bera litzateke Usurbilgo auzorik handiena, edo Usurbil Kalezarko auzorik handiena?

Nere buruari gero eta maizago egiten diodan galdera da hori, eta bide batez, kronika honetan jorratu nahi dudan beste gaiarekin uztartzeko aitzakia modura oso ondo etorriko zaidana.

Azken NOAUA!n aipamen bat egiten zen Kalezarko "labaderoari" buruz, alegia bota egin behar ote zuten edo. Bada jadanik bota dute. Garai batean, Kalezarko familien eguneroko bizi-
tza arropa garbiketa edo gobara egiteko ezinbes-
tekoa zen elementu nagusi hori, gerora auzoko ondare historikoaren sinbolo gisa geratu den hori, desagertu egin da. Urte gutxi batzuren bueltan gauzak nola aldatzen diren!

Horren lekuan eskilara batzuk egingo omen dira. Usurbilen egin berri diren etxebizitzetatik hasita, erreka sahiestuz auzoraino iritsiko direnak. Esan dezakegu Kalezar eta Usurbilen arteko zil-
borrestea izango dela. Baina, non bukatzen da Usurbil eta non hasten da Kalezar? Bietako zein da ama eta zein haurra?

Kalezar



ANDONI
UDABE

Inauteriak gainean

San Balentin, egun berezia bikote askoren-
tzat, detailetxoren batekin zorionak eman
ahal izateko elkarri, modu bitxia izan liteke arro-
sa bat oparitzea edo lore sorta bat, edo beste edo-
zein opari polit. Baita bazkari edo afari erro-
mantiko bat, gustoko jatetxe batean eta hainbat
mobil sakelean dabilen horietakoekin mezu
samur bat ere izan liteke edo posta elektroniko-
en bidez eta karta edo poesia baten bidez. Beraz,
mila moduta izan liteke berezitasun bat emateko
bidea edo aukera. Badira esaten dutenak egun
hori oso komertziala bihurtu dela, eta maitasuna
elkarri egunero erakutsi behar dela eguneroko
zereginetan. Agian arrazoirik ez zaie faltako,
baina horrela jarriak daude egun bereziak eta
hau ere beste asko bezala. Egun seinalatua bihur-
tu zaigu eta ondorioz eskeintza zabalak topa
ditzakegu toki desberdinetan, beraz zorionak,
bikote guztiei.

Bestetik esan behar, Inauteriak ere gainean

ditugula eta jendea prestaketa-lanetan hasia
dela. Eguraldi hotza izango dela diote, eta hobe
izango da moztarro potoloak prestatzea. Ea auzo-
an ere animatzen garen. Hollywood-etik begira
diseinatutako jantziak ea izaten duten, kolore
edo bizitasuna. Ondo pasa eta animatu gazteak,
urtean behin direla!



Atxegalde



MARIA
JESUS
URBIETA

PAKO
AGUDO

Santuenea

Gurasoak parkearen egoeraz kexatu dira

Gaurko honetan, auzoko haurren gurasoek azaldutakoa kontatzera natorkizue. Aspaldian beraien nahia adierazteko gogoz daude eta: azkenaldian, NOAUA!n bertan argitaratutako zenbait argazki oso politak iruditzen zaizkigu (etxe berrien aurrean ezarritako parke eta jolasguneak, Zubietako pilotalekua...). Baina guk auzoan daukagunarekin ez du zerikusirik. Badirudi gure auzoaz ahaztuta daudela; gure jolastokira gerturatzea nahikoa da horretaz jabetzeko. Lotsagarria dela deritzogu, erabat izorratuta dago, egoera tamalgarrian dago. Ez da kexu hau azaltzen dugun lehen aldia, orain bost urte egoera okerragoan zegoen oraindik eta jolas tokia jartzeko sinadura mordoa bildu arren, ez zuen ezertarako balio izan! Kalezar auzoko jolastokiko zenbait gune ez botatzearren (etxeak eraikitzeke kendu zituzten), handik hona ekarri zituzten.

Jada lau hilabete daramagu zaburik gabe. Zabuak zintzilikatzeko egitura konpondu zuten eta zabuak eraman egin zituzten konpontzeko asmoz. Oraindik ez ditugu ikusi!

Eta euria egiten duenean... putzuz josten zaigu dena, bainu jantzia jantzea besterik ez zaigu falta igerrileku bat balitz bezala ibiltzeko. Ez daukagu estal-

perik eta haurrak autobus geltokitik hartu eta zuzean etxera eraman behar izaten ditugu, ez baitute jolasgune estalirik. Ez gara taberna batean sartuko haur guztiakin, ezta? Ez dugu uste haurrentzat, ezta tabernariarentzat zilegizkoa denik.

Zer esanik ez, argiari dagokionez, iluntzean, han ez da ezer ikusten! Eta badakigu neguko arratsalde hauetan, berehala iluntzen duela!

Ez dakigu jaramonik ez egiteko arrazoia non dagoen. Santueneko auzokideok beste auzokideen eskubide berak ditugu, ezta? Haur kopurua ere, kontuan hartzeko modukoa delakoan gaude, haur gutxiago dauden auzoetan (Txokoalde, Zubieta, Aginaga, San Esteban...) ere bada jolasleku bikainik!

Hemen azaltzen duguna aintzat hartzea espero dugu, kexu hau azaltzeak zerbaitetarako balio izatea, alegia. Gure seme-alabek besteenak bezala gustora jolasteko eskubidea dutenez, aukera hori eskaintzea nahi dugu. Jakin ezazue auzoko bizilagunak hemen bizi gara (herriko erdigunetik urrunago dagoen auzoa izanik, arratsalde gehienak hemen pasatzen ditugu), eta ez gaude gure egoerarekin batere ados. Ez al dugu jada nahikoa itxaron?

Andatza magaletik

SARA
LAZKANO

Urdaiaga

Agian pentsatuko duzue San Estebandarrok ez dugula ezer berririk esaten, eta beti berdinen inguruan aritzen gara. Baina gaurko honetan niri tokatu zait goi alde honetatik hemen gertatzen denaren berri ematea, eta egia esan ez da erraza, eta gehienetan gertatzen den bezala, betikoa datorkit gogora.

Santuenetik gora datorren bidean argirik ez dagoela aipa dezaket, adibidez, eta kontatu nolakoa izaten den neguko arrats ilunetan, zazpirak aldera, bidean gora kotxez abiatzen diren egoera. Izan ere, argirik gabe egoteari, sendategikoen igoera gehitzen baitzaio eta bertokoak, txarrenean, ohitu bagara ere, egunen batean arazo larriren bat izango dugu; eta orduan, jada, beranduegi izango da.

Bestetik, eta poz handiz, kontatuko dizuet azken egun hauetan, egin dituen eguraldi eder-
rrak direla eta, bizitasuna iritsi dela eta parkea,

berriz ere, betetzen hasi zaigula. Egunero ikus genezakeen nolanahiko jendea parkean, eguraldia lagun, denbora pasa ederrean. Batzuk txakurrekin jolasean (hauek izaten dira parkea zakur kakez josita uzten digutenak), beste batzuk, mahai batean lasai eserita, kontu batzuk esaten, irri eta jolas artean, otsailak gutxitan eskeintzen dizkigun egun eguzkitsu horietaz disfrutatzen. Eta asko izan ziren, paisaia aprobetxatuz, oinez bueltatxo bat ematera hurbildu zirenak ere.

Hala ere, baziren apur bat bildurtu zirenak ere, auzotarrak, udako gau goxoetan parke inguruan izaten den soinu eta burrunbak berriz etorriko ez ote ziren erreguka.

Eta horrela pasatzen dira egunak Andatza magal honetan, motel-motel, gora-behera gehiegirik gabe. Baina, beno, hobe horrela eta ez berri txarrak emanez.

Liburuetan eta Interneten

Aginagari buruzko datu historikoak ezagutu nahi zituenak, duela gutxi arte, liburuetara jo behar zuen. Orain Interneti esker, etxetik bertatik gerturatu gaitezke Aginagaren historiara. Noski, horretarako, ordenagailua eta Interneterako konexioa behar da. Baina gero eta gehiago dira baldintza horiek betetzen dituztenak. Ez dakit, ordea, Interneten ibiltzeko ohitura duten horiek, noaua.com webgunean sartu ote diren. Besteak beste, honako informazioa irakurri daiteke bertan:



Web gunean topatu dudan informazioaren arabera, Donostiari 1.180an emandako foruetan Aginaga ere barruan sartzen da. Usurbil sortu eta, Zubieta eta Urdaiaga baino lehenago integratu zen bertara, baina administrazio independenteari eutsi zion denbora

batez. Erabat parroki independentea du, hilerri eta guzti. Liskar franko izan zituen aurrena kalezartarrekin eta, ondoren, Kaleberriarrekin udal kudeaketa zela medio.

Zubietarren antzera, Aginagak ere antzinako instituzio propioa izan zuen, komunitatea izan zen. Maiztergoan utzitako etxe eta lurak zaintzeaz gainera, aginagatarrek Irisasi mendian dituzten eskubiak defendatuko dituzte nagusi desberdinen aurrean auzi luze eta korapilotsuetan. Epaitegiak eskubide horiek gordetzearen alde agertu dira beti. Komunitatean Urdaigako baserri askok ere parte hartzen dute. Hortik azaldu beharko litzateke, beharbada, bi auzo horiek betidanik izan duten senidetasunezko harremanak.

Gauza jakina den arren, merezi du ontziolen historia gogora ekartzeak. Garai batean Mapilen erregearen ontziolak kokatu ziren, Irisasiko egurrez eginitako itsasontziez erregearen armada hornitzeko. Badira Kolonek ameriketara eramandako Santa Maria ere bertan egina zela diotenak, "Maria Galanta" omen zeritzan. Felipe IVak bere alaba Luis XIV Frantziako erregearekin ezkontzera ekartzen duenean, Bidasoan gondola baten aginean emango dio alaba errege frantziarrari. Gondola oso dotorea da eta adornu bitxiez horniturik, eta hori ere, Mapilen egina.

Aginaga



**OXKAR
SANTAMARIA**

Hau da hau marka, nahi eta ezin!

Politikariei ahoa hitz politez betetzen zaie, herritarrei beraiek ere egiten ez dutena eskatuz; denok birtziklatu behar dugu gure natura era egokian zaintzeko, denon esfortzuekin lortuko dugu,... baina badirudi naturak ez duela zubietarren lankidetzarik behar, eta bestela ea nork dakien zein arrazoi dela eta, zubietarrok oraindik gure plastiko eta metalen materialen poltsarekin kotxean bidaiatu behar dugun Santuene, Txikierdi edo Lasarteraino. Birtziklatu nahi eta ezin herrian bertan egin. Izan ere, ziur politikariren bat izango dela pentsatzen duena zubietar guztiok behiak ditugula etxean eta ez dugula esnea tetrabriketan hartzen.

Ez da oraingo kontua. Une honetan herria hankaz gora dugu obrak direla eta ez direla, eta ulertzekoa da mota honetako zerbitzuak ez egotea funtzionatzen bere % 100ean. Baina obretan sartu aurretik ere plastikoarentzako konteinarririk gabe geunden. Nola egin aurrera jendea-



ren kontzientziazio lanetan herritarrei ez bazaie bidea errazten?

Pentsatu nahi dut orain Zubietan herritar berriak izango ditugula eta mota honetako zerbitzuak gehiago garatu eta hobetuko zaizkigula. Espero dezagun. Bitartean poltsa hauek kotxean eraman beharko turismo pixka bat egitera.

Zubieta




**OLATZ DE
MIGUEL**

Aimar Irigoienek Usurbilen hautsi nahi du munduko errekorra

Sagarrondotik jaialdiaren aitzakiarekin, herri kirol festa ederraz gozatu ahal izango dugu otsailaren 28ko arratsean. Proba artean, munduko errekorra hausten saiatuko da Aimar Irigoien harri-jasotzailea.

Esku bakarrarekin 200 kiloko harri errektangularra jasotzeko saiakera egingo du Aimar Irigoien gazteak. Aurreko errekorra Inaxio Perurenak ezarri zuen 180 kilorekin. Aimarrekin 17 urte ditu eta historian zehar adin



17 URTE DITU AIMAR IRIGOIENEN.

horrekin inork ez du mota honetako harriarik jaso.

Otsailaren 28an Herri Kirol festa Dema Plazan

TXINGAK: (2 pertsona herri bakoitzeko)

50 kilo txinga bakoitzak. 3 minutuko 2 saiotan nork plaza gehiago egin.

SAGAR ILTZATZEA: (Emakumezko 1 herri bakoitzeko)

25 sagar iltzatzea kizkiarekin. Sagar bakoitza metro 1eko distantziara.

ZAKU LASTERKA: (3 pertsona herri bakoitzeko)

Sagarrez beteriko zakuak (50kg). Erreleboka 9 buelta plazari

INGUDEA: (Pertsona 1 herri bakoitzeko)

18 kilokoa. 2 minututan nork gehiagotan jo

AIZKORA: (Pertsona 1 herri bakoitzeko)

2 kana erdiko moztea. Pinu egurra.

TRONTZA: (2 pertsona herri bakoitzeko)

6 korte nork lehenago eman. Pinu egurra.

HARRI-JASOTZEA: (Pertsona 1 herri bakoitzeko)

5 minututan 70 kiloko harri bola nork gehiagotan jaso.

SOKATIRA: (8 pertsona herri bakoitzeko)

Gehienez 650 kilo denen baturak. 3 tiraldi eta denak denen aurka.

Proba artean, Aimar Irigoienek erakustaldia.

TALDEAK

URNIETA, urdinez

USURBIL, gorritz

HERNANI, berdez

ASTIGARRAGA, horiz

PUNTUAZIO SISTEMA

Probako lehena: 4 puntu

Probako bigarrena: 3 puntu

Probako hirugarrena: 2 puntu

Probako laugarrena: 1 puntu

Proba amaitu ezean: 0 puntu

SARRERAK, ALDEZ AURRETIK, MERKEAGO

Martxa ederrean doa Sagarrondotik jaialdirako sarrera-salmenta. Beraz, badaezpada, alde z aurretik erosi. Gainera merkeago aterako zaizu. Aldez aurretik erosten baduzu, sarrera 15 eurotan. Bertan erosita, 18 eurotan. Sarrerak Txiribogan eskuratu ditzakezu. Baita inguruko herri hauetan ere: Donostian (Bilintx, Bukowski), Urnietan (Xauxar), Astigarragan (Kizki), Usurbilen (Txiriboga), Tolosan (Shanti), Oreretan (Arkaitza), Irunen (Eskina).

KONTZERTUEN KARPA, SAGASTIALDE AUZOAN

Aipatu kontzertuak Hernanin egin-Ago dira, Sagastialde auzoan ipiniko den karpan. 10.000 pertsona biltzeko ahalmena du karpa erraldoiak. Jaialdiak jarraitu ez ezik, mokadu bat hartzeko aukera ere izango da. Janari-bokata karpa bertan izango da (oilaskoak, patatak...) eta sagardo kupelak ere ipiniko dira. Txozna gunea ere jarriko denez, eguna argitzeraino martxa ziurtatuta dago.

INFORMAZIO GEHIAGO, SAGARRONDOTIK.COM

Bestelako informaziorik jaso nahi baduzu, sar zaitez orrialde honetan: www.sagarrondotik.com

INSTITUZIOEN BABESA


Sagardoaren Kultura sustatzeko Elkarrekin antolatuta du Sagarrondotik jaialdia baina Usurbilgo Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesa jaso du. Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak eta Usurbilgo Sagardogileen laguntza ere eskertu nahi dute antolatzaileek.



ITZ G
HEIKTEN
S. M. A. P. O. N. A. K. I. U. P.
K. A. N. A. K. I. U. P. A. K. I. U. P.
TEL. 33 217

Enketa prestatuta





TXIRIBOGA
TABERNA
ntx k, k t k
t l t r k n n t u k
Irazu kalea, 3 Telf: 943 36 13 98

Zurumurruak zurumurru, iragarritako taldeak arituko dira

Azken egunotan, hasieratik iragarritako hainbat talde ez direla arituko zabaldu da herrian. Baina Sagarrondotik antolatutak diren kideek esan digutenez, ez da talde bat bera ere atzera bota. Beraz, iragarritako talde guztiak izango dira Hernaniko karpan. Otsailaren 27an, Fito & Fitipaldis,

Su ta Gar, Reincidentes eta Orisha's taldeak arituko dira zuzenean, gaueko 22:30etatik aurrera. Eta larunbatean Hernaniko karparen oholza gainera igoko diren taldeak hauek izango dira: Fermin Muguruza & Kontrabanda, Ojos de Brujo, Kuraia eta Ari.



FITO OTSAILAREN
27AN ARITUKO DA.



ORISHA'S TALDE KUBATARRA ERE,
HILAREN 27AN ARITUKO DA.



FERMIN, ALDIZ,
OTSAILAREN 28AN.

Eskaintza zabala

Musika saioak, bertsolariak, trikitilariak, dastaketa komen-tatuak, herri-kirolak... eskaintza zabala da. Herri-kirolen bilgunea, nola ez, Usurbilgo dema-plaza izango da. Pare pare arituko dira Usurbil, Hernani, Urnieta eta Astigarragako ordezkariak. Irudian, prentsaurrekoan parte hartu zuten lagunak; horien artean, Ibon Beristain Usurbilgo kultur zinegotzia, Real Sociedad taldeko Igor Jauregi eta Igor Gabilondo jokalaria eta Urnieta, Hernani eta Astigarragako udal ordezkariak, sagardogileak eta sagardoaren bultzan dabiltzan elkarteetako kideak.



Egitaraua, egunez egun

OTSAILAK 26 OSTEKUNA

INAUGURAZIOA URNIETAKO SAROBEN. Harrera ekitaldia, sagardogileak, Kofradiak eta Elkartek aurkeztua. Real Sociedad, futbol taldeari "Sagardoaren Mezulariak" ikurraren ematea, Europan zehar Gipuzkoaren izena zabaltzen ari delako iaz eginiko lan onaren ondorioz. "Zaharregia, Txikiegia agian" olerki eta musika emanaldia (Kirmen Uribe, Mikel Urdangarin, Bingen Mendizabal, Rafa Rueda).

OTSAILAK 27 OSTIRALA

MUSIKA HERNANIKO KARPA ERRALDOIAN. Fito & Fitipaldis

(Euskal Herria), Reincidentes (Andaluzia), Su Ta Gar (Euskal Herria), Orisha's (Kuba). 12.000 pertsonentzako lekua duen karpa, Txozna gunek, disko jartzaileak, oilaskoak, bokatak, sagardo kupelak...

OTSAILAK 28 LARUNBATA

HERRI KIROLAK USURBILGO DEMA-PLAZAN. Usurbil, Astigarraga, Hernani eta Urnieta arteko lehia ikusgarria: txingak, sagar biltzea, zaku lasterketa, ingudea, aizkora, trontza, harri jasotzea, sokatira... Sagardo dastaketa, taloak, txorixoa. 17:00.

MUSIKA HERNANIKO KARPA ERRALDOIAN. Ari (Katalunia),

Kuraia, Ojos de Brujo (Katalunia), Fermin Muguruza & Kontrabanda.

OTSAILAK 29 IGANDEA

SAGARDO II. MOSTRA ASTIGARRAGAN. Goizean goizetik, 10:00etatik aurrera herrian barrena: Euskal Herri osoko 60 sagardogileren mostra, Euskal Herriko produktuen azoka, Sagardoaren museo ibiltaria 12.00etan "Kata Komentatua" Xabier Kamio enologoaren eskutik. 13.30etan Patxi Perez eta Iparraldeko dantzarien ikuskizuna "Dantza Piko". 17.00etan bertsolariak: Mendiluze, Egaña, S.Lizaso, M.Lujanbio, trikitilariak.

Menuak astean zehar eta
ZENDOIA taberna
Kale Nagusia 35
Tel: 943374021
asteburutan menu bereziak

txirriStra
TABERNA
- Plater konbinatuak
- Ogitarteak
- Pintxoak
Kontseju zaharra, 13
Tel: 943 36 04 66

PATRI
JATETXEA
- Egunerako menuak
- Plater konbinatuak
- Ogitarteak
Tel: 943 36 27 25
Kale Nagusia, 14

Otsailaren 27an amaituko da Udarregi Ikastolan matrikulatzeko epea

Usurbilgo ikastetxe bakarra den aldetik, matrikulatu nahi duen ororentzat irekita daude Udarregi Ikastolako ateak. Xabin Aizarnak, Udarregiko zuzendariak, argi esan digu: “ezin dugu inor kanpoan utzi. Hori da gure helburua: lekua dugun bitartean, ahalik eta ikasle gehien hartzea. Orain arte ez dugu arazorik izan, horregatik ez dugu jatorri mailako lehenetasunik ezartzen”.

GERO ETA IKASLE GEHIAGO
Matrikulazio garaia da. Zein izan da azken urteotako bilakaera?

Xabin Aizarna. Bi urteko umeei dagokionez, oso aldakorrek dira kopuruak. Oso lotuta dago erroldari, jaiotako ume kopuruari. Gainera, urte horietan, bi eskaintza jasotzen dituzte. Hiru urtekoan, eta orohar, Haur Hezkuntzan (HH) eta Lehen Hezkuntzan (LH) igoera oso nabarmena da.

DBHn, igoera-joera mantendu egiten da. Azken bost urteotan, batz bestea, hogeinaka igo da ikasle kopurua. Gero eta ikasle gehiago jasotzen ari gara.

0-16 urte bitarteko hezkuntza-proiektu bateratua garatzeko asmoa ez da berria, zertan daude gauzak?

X. A. Oraingoz geldirik dago. Harremanak izan dira Udala, Haur Eskola eta Udarregi Ikastolaren artean. Baina arrazoi ezberdinak medio, oraingoz geldirik dagoen egitasmoa da.

KALITATEAREN ALDE
Kalitatearen Legea ere hortxe da. X. A. LOCEren garapena dela eta, Ikastolen Federazioak antolatuta dauka mintegi iraunkor bat. Lege horren aurrean jarrera komun batzuk adostu beharko genituzke. Indarrean izan den LOGSE legeak zituen alderdi onak mantendu beharko genituzke. Baina ikastolak baditu bestelako kezkek ere.



AZKEN URTEOTAN, MATRIKULAZIOAK GORA EGIN DU ETENGABE.

ETORKINEN INTEGRAZIOA

Etorkinen presentzia gero eta nabarmenagoa da. Eskaera honi erantzuteko moduan al da Ikastola?

X. A. Iazko ikasturtean, 17 etorkin genituen; adin eta jatorri ezberdinekoak. Iaz ez zen diru-laguntzarik izan. Aurten, Hezkuntza Sailak diru-laguntza batzuen deialdia egin du, bereziki, hizkuntza-errefortzuak emateko. Badirudi diru-laguntza iritsiko dela. 2002/2003an, gastu horri, gurasoen kuotekin egin zitzaion aurre.

Ikasle kopuruaren bilakaera azken urteotan

Ikasturtea	2 urte	HH	LH	DBH	Guztira
99/00	22	93	196	140	451
00/01	37	107	195	132	471
01/02	42	114	202	124	482
02/03	33	137	211	121	502
03/04	27	145	229	123	524

Udarregi Ikastola

Matrikulazioa martxan

Noiz: Otsailaren 16tik 27ra (biak barne).

Ordutegia: Aldez aurretik deitu.

Non: Udarregi Ikastolan.

Telefona: 943 36 12 16.

Nori dago Zuzendua: Edonori zuzendua. Ikastetxe bakarra denez, ikasle denak hartzen ditu Udarregik.

AEK euskaltegia

Goizez, arratsaldez nahiz gauez ikasteko aukera zabala

Euskaltegiko matrikulazio epeak zabalik jarraitzen du. Maila guztietan eman daiteke izena. EGA eta alfabetatze ikastaroak ere antolatzen dira bertan. Ordutegia malgua da oso: goizez, arratsaldez nahiz gauez. Gainera, langabetu, ikasle eta gurasoentzat matrikula merkeagoa da. Informazio gehiago telefono zenbaki honetan: 943 37 20 01.

Lanbide Eskola

Udaberrian aurreinskripzioa, uztailean matrikulazioa

Zubietako Lanbide Eskolan izena emateko zasmaz bazabiltza, lasai hartu. Aurre-inskripzioa ekainean hasiko da eta matrikulazioa uztailean. Aurrerago zehaztuko ditugu Lanbide Eskolako matrikulazioaren inguruko xehetasun guztiak.

Haur Eskolaren matrikulazio kanpaina, ordea, martxoaren lehenean hasiko da

Euskal Herriko herrietako errealitatea aldatzen joan da azken urte hauetan, izan ere, emakumea lan merkatuan hasi denetik haurraren heziketan behar berriak sortu baitira. Hau dela eta, Usurbilgo Udalak bertako herritarren eskaerari erantzun bat eman nahi izan zion. Duela hiru urte, lehiaketa publiko bat egin zen eta egun lanean ari den taldearen ardurapean geratu zen Haur Eskola.

Talde honek, beraz, hezkuntza ikuspegitik eskaintza berritzaile bat egin nahi du, eta egungo gizarte ereduaren etengabe ematen ari diren aldaketek so eginez erantzun egokiak eta hezkuntza ikuspegi batetik koherentea izango dena praktikan jarri nahi du.

0-3 URTEKO HAURRENTZAT

Haur Eskola 0-3 urte bitarteko Usurbil zein inguruko herrietako haurrei zuzendua dago. Haur hauek hiru adin tartetan egongo dira bereiztuak 2.004/05 ikasturtean: 0-1 gela (2.004. urtean jaio eta jaioko diren haurrak), 1-2 gela (2.003. urtean jaiotakoak) eta 2-3 gela (2.002. urtean jaiotakoak).

URTE OSOAN IREKITA

Haur Eskola urte osoan irekita dago abuztuan eta jai egunetan izan ezik.

Bertako ordutegia goizeko 07:30etatik arratsaldeko 19:00ak bitartekoa da.

ZERBITZU INTEGRALA

Zerbitzu pedagogikoa: Haurren beharretatik abiatuko den hezkuntza proiektu batean datza, haurra inguratua dagoen kultur girora egokitua. Aldi berean, haurrek txiki-txikitik euskara ikas dezaten tresna edo baliabide egokiak eskeintzen dira.

Jantokia: Haur Eskolak bi otordu eskaintzen ditu egunero; alde batetik bazkaria, eta bestetik merienda. Sehasketan dauden haurrei berriz bibe-roia eskeiniko zaie.

Elikadura: Elikadurak haurraren garapen fisiko eta intelektualean eragina du, beraz, Haur Eskola honek elikadura egokirako apostua egin du. Horregatik, sukaldea eta sukaldaria Haur Eskola bertan daude. Erabiltzen diren elikagaiak, bertakoak eta urtaro bakoitzekoak izan daitezten ahaleginak egiten dira. Egun esku artean proiektu berri bat du Haur Eskolak, non aurrera begira kontsumitzen diren elikagaiak ekologikoak izateko helburua duen.

Osasun eta atsedeen zerbitzua: Haur bakoitzaren adin tartearen beharrei erantzunez egongo da banatua. Adin tarte honetan atsedena duen garrantziaz jabeturik, lotarako beharrezkoak diren tresnak eskainiko ditu.



07:30ETATIK ARRATSALDEKO 19:00AK ARTE IREKITA IZATEN DA HAUR ESKOLA.

GORAKADA NABARIA

2.001. urteko irailean ireki zituen ateak Usurbilgo Haur Eskolak. 12 haurrekin hasi eta 24 haurrekin amaitu zen ikasturtea. 2.002/03 ikasturterako 43 haur matrikulatu ziren. Gaur egun, berriz, 2.003/04 ikasturtea burutzen 58 haur daude. Gorakada nabaria izan da, beraz. Haur Eskolako kideek esker beroena luzatu nahi diete hasiera batean egitasmo honengan konfidantza jarri zuten familiei.

Haur Eskola (Kalezar)

Otsailaren 23an, aurkezpen ekitaldi irekia

Aurkezpena: Haur Eskolan, otsailaren 23an, 19:00etan. Haur Eskola erakustez gain informazio orokorra eskeiniko da. Edozein zailtasun izan ezker, bertan izango du aukera argitzeko.

Matrikulazio kanpaina:

Noiz: Martxoak 1/ martxoak 5.

Ordutegia: 16:30/ 19:00.

Telefonoa: 943 37 40 61.

Non: Haur Eskolan (Kalezar).

Nori dago Zuzendua: 2002, 2003 edo 2004. urtean jaio eta jaioko diren Usurbil

zein inguruetako haur guztiei zuzendua.

Hainbat ohar:

- Plaza mugatuak direnez, lehentasuna usurbildarrak diren haurrek izango dute eta izen-emate ordenaren arabera zehaztuko dira plazak.

- Martxoan, matrikulazio garaian izena ematen duten usurbildarrak lehentasuna izango dute. Matrikula garaitik kanpo, Haur Eskolara gerturatu eta plaza librea aurkitzen duen orok lehentasuna izango du, nahiz eta usurbildarra ez izan.

HAUR ESKOLAREN OHARRA

Ohar honen bitartez, Usurbilgo Haur Eskolak eskerrak eman nahi dizkie gabonetan, Olentzeroren jaialdia aurrera atera ahal izateko laguntza eman ziguten Igarzabal baserriko Santosi bere astoa uzteagatik, eta astoa Haur Eskolara ekartzen lagundu zigun Udaletxeko brigadari. Mila esker!

Usurbilgo Haur Eskola (Kalezar)

FMren lehen singleak Ainara Mujika eta Inaxio Zubeldiarentzat

Aurreko alean aipatu genuen bezala, astelehenero CD bat zozketatuko dugu gure web orriko erabiltzaileen artean. Lehen irabazleen izenak aipatzeko moduan gara: zorionekoak, Ainara Mujika eta Inaxio Zubeldia. Web orrialdeko erabiltzaile egin ziren eta horri esker irabazi dute saritxo hau.

Beste hiru CD ditugu zozketatzeko. Baina nola parte hartu zozketa horretan? oso erraza da.

Zuk ere CD bat eskura dezakezu "Jaso aldizkaria zure posta elektronikoan" izeneko atalean sartu.

Hutsuneak bete eta hama-bostero zure e-postan jasoko d u z u N O A U A ! aldizkariaren edizio elektronikoa. Ez hori bakarrik, astelehenero, CD-single bat zozketatuko dugu aldizkariaren edizio digitala eskuratzen dutenen artean.

FMren lantxo honek, orain arte argitaratugabea izan den abesti bat dakar: "Zubizuria Disphoria Remix".

Gogoan izan Fermin Muguruza otsailaren 28an arituko dela Sagarrondotik jaialdian.



Inkestak

noaua.com gunean

Gure web orrialdean topatuko dituzu azpiko inkestak. Hauek eta baita aurreko aleetan planteatutako galderak ere.

Sar zaietz gure noaua.com orrialdean eta zure iritzia eman ezazu. Oso erraza da.

Inauterietan moztarrotzeko ohiturarik bai?

Bai, urtero moztarrotzen naiz	% 20.00
Ez, sekula ez dut egin	% 20.00
Aukeratutako gaiaren arabera	% 00.00
Batzutan bai, bestetan ez	% 60.00

Txotx garaiko prezioak bidezkoak iruditzen al zaizkizu?

Bai, jan-edandakoarekin parekatzen da	% 21.43
Ez, garestia iruditzen zait	% 71.43
Beste urteetako prezioen parekoa da	% 07.14

:: ASTE HONETAKO INKESTA ::

Garraio publikoa erabiltzen al duzu?

- ☐ Gehienetan.
- ☐ Ez, ez da nire beharretara egokitzen.
- ☐ Bakarrik autobusa erabiltzen dut.
- ☐ Bakarrik tren erabiltzen dut.

Botoa eman www.noaua.com web gunean

Tapa eta aurkibidea, ez utzi azken ordurako

Agur esan diogu 2003 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2003ko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok, doan jaso dituzue azala eta aurkibidea.

Tapak eta aurkibidea doan eskuratzeko dituzte bazkideek (baina

NOAUA!ko bulegotik pasa). Bazkide ez direnek, aldiz, 3 euro ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1'20 euro, aurkibidearengatik. Koadernatzea, Lizardin edota Lauroken egin dezakezue. Hori bai, koadernaketa berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.

h k k l , 4
T H 43 3 57 42

LK T
UT ZE ITZU

ETXEK

F NT K
ZKI K
IKTU K
K NOEL TU K

H n k n U z n n , s l z

USU ILG H TZ KLINIK

EE N N E EZ-M SS NENNINGE
NT NI E N L UIZ E

K U N U S , 2 I . C 2 17
Tlf 3 37 7 USU IL

Usurbil Autoak, S. C. L.
Zerbitzu Ofiziala

Zumartegi Poligonoa
Aitezarra kalea, 1
20170 USURBIL

Tlf: 943 36 10 79
Faxa: 943 36 62 92

Kalkos kopisteria

Juan de Garay kalca
20160 Lasarte-Oria

Telf: 943 37 64 24 Fax: 943 37 61 55

Fotokopiak
Fotokopiak koloretan
Plastifikazioak (DIN A2)
Fax zerbitzuak (jaso-bidali)
Pantone kopiak (AO arte)
Ordinadoreko lanak
Enkoadernaketak (wire-a, kiribidak, liburuak)
Zure argazkia puzzle batean

Orrialdea bete eta NOAUA!ra ekarri edo telefonoz deitu: 943 360 321

Hollywoodeko izarrak Inauterietan

Gaiak joko asko eman dezake. Imaginazio pixka batekin, mozorro politak egin daitezke. Baina proposamen honen arrakasta larunbatean, hilaren 21ean, neurtu ahal izango dugu. Hori ez da, ordea, Inauterietako ekitaldi bakarra izango. Zumarte Musika Eskolak Angularen Ehorzketa egiteko asmoa azaldu du. Baina hori otsailaren 24an izango da.

Oiardo kiroldegian hasiko da Inauteri festa. Ohikoa den moduan, Udarregiko ikasleak emanaldi koloretsua eskainiko dute otsailaren 20an. 10:30etan hasiko da ekitaldi hori. Larunbatean, ordea (hilak 21), kalean egingo da mozorro festa. Iaz bezalaxe, haurrak izango dira larunbateko lehen protagonistak. Goizeko 11:00etatik aurrera, tailerrak eta jokuak egingo dira herriko pilotalekuan. Arratsaldean, aldiz, txiki eta nagusien desfilea. Mozorro-desfilean parte hartzen dutenen artean, bi sari banatuko dira. Tabernaz taberna ibiliko da desfilea, eta epaimahaikide lanetan tabernariak eta herritarrek arituko dira. Alde batetik, tabernariak emandako puntuak zenbatuko dira. Eta bestetik, tabernan bertan aurkitzen diren herritarrek emandakoak.

Gaueko 21:00tan egingo da boto zenbaketa, pilotalekuan hain zuzen. Zorte on!



MOZORRO HAU GLADIATOR FILMERA EDERKI ASKO EGOKITZEN DA.

Inauteriak, egunez egun

OTSAILAK 20, OSTIRALA

Udarregi Ikastolako haurren emanaldia Oiardo kiroldegian. 10:30etatik aurrera.

OTSAILAK 21, LARUNBATA

Goizeko 11:00etan frontoian umeentzako jokuak eta tailerrak. Arratsaldeko 18:30etan herriko frontoian koadrilen elkartzea eta desfilearen hasiera. 150 euroko bi sari. Lehena, tabernarien botoekin aukeratua. Bestea, jendeak emandako botoekin aukeratua.

OTSAILAK 24, ASTEARTEA

Angularen ehorzketa. 19:00etatik aurrera, Zumarte Musika Eskolatik abiatuta.

LAGUN ASKO SANTIXABEL JAIK PRESTATZEKO LEHEN BILERAN

Santixabel Jaiak prestatzeko lehen bilera otsailaren 11n egin zen. Udaletxeko liburutegian egin bileran 25 lagun bildu ziren.

Martxoan bertan, bigarren bilera bat egingo da. Gogoan izan bilerak irekiak direla eta herritar orok har dezakela parte.

Laster ezagutuko dugu jaietako egutegi zehatza, dena den, aurtien Santixabel eguna ostiralarekin egokitzen da.

900 KM EGIN ETA GERO, EZIN PATXI SEGUROLA BISITATU

Etxeratlek eman digu albistea. Urtarrilaren 17an hiru lagunak bisita jaso behar zuen Patxi Seguirolak. Baina hiruetako bati sarrera debekatu zioten. Hilabete lehenago egin zuen bisita-eskaera Villepinteko espetxean (Frantzia), baina izena gaizki hartu omen zioten eta bisita egin ezinik geratu zen, haraino 911 km egin eta gero.

JU NTX
ur n
k l n us l Usur l
SI

L T ILL E
ITU GINTZ G SET E GINTZ
INST L KUNTZ K
IZTTTX K L F . 3 3 2 35-3 33
FHF M I 21

JOSETXO IKATZETA
Iturgintza
TEL: 943 36 20 26
687 95 12 25

ERRAZ IN
Igeltzer tzo
r rra
K I N us l
T I L 3 3 / 2 7 r 3 SI 25
S ntu ■ M 2 2 3 3

G L G
garraioak
ZABOR BILKÆT
TEL: 943 37 01 46

I lts r tz
Mugikorra: 649435475
649435476
943 363370- 361439

Kopa Txapelketa jokatzeko hasi da senior mailako eskubaloia taldea

Ondo hasi zuen denboraldia senior mailako Usurbilgo Eskubaloia Taldea. Ligako lehen itzularen amaieran, lehen postuetan ziren Antonio Castro entrenatzailearen mutiak. Lesioek, ordea, ez dute barakatzen. Horregatik, bigarren itzulia ez da batere ona izan. Liga pasa zen, eta orain Koparengatik ari dira lehian.



USURBILGO TALDEAK LEIZARAREN AURKA HASI ZUEN KOPA TXAPELKETA.

Senior taldeak jokalaria gazteekin ekin zion denboraldi berriari. Taldeko adinaren batz bestekoa 22 urtekoa baita. Hasieratik, bi jubenil ari dira seniorrekin jokatzeko. Beraunaldi aldaketa baten aurrean gaude eta, honi esker, urte batzuetarako oinarri sendoa ziurtatuta dauka senior taldeak.

Antonio Castro senior taldeko entrenatzailea da eta gustura dago orain arte egin

duten lanarekin: "oso pozik nago mutiekin. Ligako lehen itzulian soilik partida bat galdu genuen. Baina gero, lesio asko izan ditugu". Liga amaiatu berri da eta orain Federazio Kopa da helburua. Hori amaitzean, Gipuzkoako Kopa hasiko da. Ea ez diren Ligan izandako lesioak errepikatzen.

ESKUBALOI TALDEA SENIOR MAILA 03/04

Taldeakideak:
Pako Agudo
Gabi Sarasola
Urko Manterola
Juan M. Hernandez
Igor Castro
Xabi Donosti
Martin Larrañaga
Iñigo Aguirrezabal
Andoni Castro
Ibai Orena
Iñaki Zugasti
Eneko Garcia
Jaroi Rico
Edorta Egües
Patxi Bengoetxea
Adur Urkia
Aitor Eizagirre
Jon Begiristain
Joxi Calonje

Entrenatzaileak:
Antonio Castro
Delegatua:
Xabi Iribar

Joxemiel Peñagarikano, Urrezko Aizkolariaren finalean

Peñagarikano-Txapartegi eta Arrospide-Ugarteburu bikote gipuzkoarrak gogo biziz aritu ziren Espejon (Araba), Urrezko Aizkolariaren azken finalerdian. Azkenean, Peñagarikanok eta Txapartegik lortu

zuten finalerako txartela, 7-6ko emaitzarekin irabazi eta gero. Urrezko Aizkolariaren finala Azpeitiako kiroldegian jokatu da, otsailaren 29an hain zuzen. Larretxea eta Mindegia izango dituzte aurrez aurre.



SASOI BETEAN DA PEÑAGARIKANO

ETXEKOAK NAGUSI

Jende asko bildu zuen Gipuzkoako eskuz binakako txapelketaren finalak. Afizionatu mailako txapelketa honetan, etxeok izan ziren nagusi, Errekondo eta Portularrume, Aretxabaletako Juntxo eta Arana pilotariei 22-12ko emaitzaz irabazi ostean. Zorionak!



Hurrengo saioak !

FUTBOLA

Otsailak 28, larunbata

Emakumezkoen liga: Usurbil FT, atsedena.

ESKUBALOA

Otsailak 28, larunbata

Kadeteak: Aloña Mendi KE - Usurbil KE.



Martxoak 6, larunbata

Kadeteak: Usurbil KE - Amenabar Zarautz.

PILOTA

Berria Taldeko Pilota Txapelketa Aginagan

Otsailak 21, larunbata

Anaitasuna (Azkoitia) / Berriotoxa (Elorrio).

17:00etan Aginagako pilotalekuan.

Berria Taldeko Pilota Txapelketa Aginagan

Martxoak 13, larunbata

Txaruta (Baztan) / Murumendi (Beasain).

17:00etan Aginagako pilotalekuan.

Antolatzaileak: Andatzpe-Peña Pagola, Hernani eta Urnieta pilotari elkarteak. **Babesleak:** Urnieta, Hernani eta Usurbilgo Udala.

TXU

UT

r t

t mus k ts n


S n Est n k l , 1
T l 3 3



Etx st k l , 3
T l 3 3 11

MAHUKA

G z n t m kum z k n
m k rr uez
h m n urk tuk uzu



OTSAILA, OTSOEN ILA, GURETZAT, HOTSAREN HILABETEA

Zuhaitzak kimatzen ikusi ditugu. Adarrak pilatuta kamioian eramaten ere ikusi dugu. Guk adar-makilak hartu eta hilaren 4an zer egiten dugu? Hona hemen Bertso Eskolako haurrek asmatutako bertsoak:

SANTA(i)AGENDA

Dios te salbe, ongi etorri.
Arratsalde on Jainkuak.
Kristau zelako hil omen zuten
Bularrak ebaki eta.

1.-Italiarra, neska polita
Izan zen Santa(i) Ageda.
Kristau zelako hil omen zuten
Bularrak ebaki eta.

2.-Kendu zizkaten bularrak baina
neka eutsi bereari.
Palermone jaio ta Catanian
Egin ziguten martiri.

3.-Euskal Herrian Santa(i) Agedak
Daduzka(i) ermita gutzi.
Gutxi badira, behar diegu
Zutik eta txukun eutsi.

4.-Ermita gutxi, baina ospatu
Ohi dugu herri askotan.
Bere bezperan koplak kantatzen
Ibiltzen gara bertsotan.

5.-Ikastolatik atera(i) eta
Etorri gera(i) honera
Kopla hauekin ospatzen dugu
Santa(i) Ageda bezpera

6.-Santa(i) Ageda egun ederra,
Pozik igarotzekua.
Usurbildarrok kanta-kantari
Pasa dezagun gaurkoa.

7.-Santa(i) Ageda neska santua
Gaur goraipa nahi duguna.
Urte askuan eman bezaigu
Honetarako osasuna.

8.-Eskerrik asko entzunagatik
Gure kopla-makil-hotsak.
Santa(i) Agedak ditzala bihar
Goxatu zuen bihotzak.



*Dios te salbe, ongi etorri.
Arratsalde on Jainkuak.
Urte guztian zaindu gaitzala
Ageda bedeinkatuak*

BERTSOEN EGILEAK: Jokin, Markel, Aitor, Ugaitz, Mikel, Xabier, Beñat, Ander, Imanol, Oihan, Ane. 2.004-01-23

Bestalde, hotsaren hilean, beste ospakizun ospetsu bat ere aurrean izango dugu. Ospea Tolosan du gehien inguru honetan. Lantzen, Zubietan eta beste zenbait herrietan ere oso festa garrantzitsuak dira. Zertaz ari gara?



-----_etaz
Ezagutzen al duzue Lantz-eko inauterietako pertsonai hau? Nor da?



Pertsonaiaren izena:

Manuel Lekuonak dioenez, gure Iaute, Iautu hitzetik letorke, eta garbitu, astindu, jo eta zartaka garbitzea esan nahi du, lixiba jo, xuritu, ezabatu...

"Inauteri edo karnabalak izan dira, noski, gizarte-jairik osoenak eta biribilenak. Guzia berekin baidute: parrealgara, basatikeria, maltzur-jokoa, izua, keskabide eta zitalkeria. Beroietan baidiraute "totem" edo diralako aintzinkutsudun sentipenik zaharrenak", Pío Baroja.

7 ezberdintasunak aurkitu

Lehen Hezkuntzako 1. maila



NOAUA!ko LEHIAKETA!!



Noaua! Kultur Elkarteak antolatuta
Gorringo Taldearen
"KUTSIDAZU BIDEA, IXABEL"
antzezlanaren bi sarreta zozketatuko ditugu
lehiaketan parte hartzen dutenen artean.
Antzerkia datorren martxoaren 12an, ostirala,
gaueko 22'00etan egingo da
Usurbilgo Oiaro kiroldegian.

Animatu eta parte hartu Noaua!ko lehiaketa ikusgarrian!
Sari zoragarri hau irabazi dezakezue bi galdera hauek
ondo erantzuten badituzue.

ERANTZUNAK BIDALTZEKO AZKEN EGUNA
OTSAILAK 29

Noaua! hamabostaria, Bordaberri 3 Eguzkitzaldea,
20170 Usurbil (Gipuzkoa)
Noaua! Kultur Elkarteko buroioan
U-maila: erredakzioa@noaua.com

1. Zer izen du ondo heldu edo umatu galako sasoi-hasierako lehen
sagarrekin (sagar txoroekin) egiten den edari gozo lodia?

a)Txiria b)Zizarra d)Pitarra

2. Nola deitzen zaio sagardo botilaren behekaldean
sortzen den kondar likatsuari?

a)Muxtioa b)Txinparta d)Ama

175. lehiaketako erantzunak hauek dira:

1. Noaua! Kultur Elkartearen 2004ko egutegian atxikituak dituzten agertokiaren baten
baserrian izenak nongo al diruzkizkiz? Irutubietza (Zubieta), Erroizpe (Urdaiaga),
Bizkarrenea (Kaleizar) eta Igoletarxaki (Kalehernia)
2. Eta egutegian agertzen den azkeneko argazkia, bertako argazki delako bati, zuei
erantzukiz du? 1970. urtekoa

Irabazlea MIKEL ARANZABE, izan da.

Euskarazko hiru liburu zoragarri hauek eta
gurutzegramak irabazi dituzu.

Jaso ezazu saria Noaua!ko egoitzan. ZORIONAK!!



Soluzioa: 22. orrialdean.

Usurbilgo aizkolaria

Emakume izena	Ibarrak	Pilota jokaldia	Kutxa	Setati	Solas, hitz	Ipurtaldea
Egokiera	Röntgen	Nik neza- ke, hark ...	Eromenak	Musika tresna	Musika nota	
					Dardara	
		* IZENA				
		Pl., lotara- ko egitura				
						500
						Errep., gorotza
				Mendiko atea		
				Ing., barne		
1	Funts					
Jaurtigaia	Ipar., apal			Asiako estatua		
				Ez ahal		
		Nire			Bokala	Bokala
		Mugaren erdian			Neka, una	Ald., zintzoa
Nafarroako udalerria					Bokala	
* DEITURA					Nor atzizkia	4. eta 1. bokalak
Nigeriako herria		Konoaren formakoa				

Eusko Tren-en neguko tren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47*	06.03*	06.20*	06.08*	06.24*	06.39*
06.17*	06.33*	06.50*	06.38*	06.54*	07.09*
06.47*	07.03*	07.20*	07.08*	07.24*	07.39*
07.17	07.33	07.50	07.38*	07.54*	08.09*
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17*	08.33*	08.50*	08.38*	08.54*	09.09*
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09.52/		10.21/	10.05	10.24	10.39
10.17	10.33	10.50	11.08	11.24	11.39
10.47	11.03	11.22	11.22/		11.47/
11.51	12.05	12.20	12.08	12.24	12.39
12.17*	12.33*	12.50*	12.38*	12.54*	13.09*
12.47	13.03	13.20	13.08	13.24	13.39
13.17*	13.33*	13.50*	13.38*	13.54*	14.09*
13.47	14.03	14.20	14.08	14.24	14.39
14.17*	14.33*	14.50*	14.38*	14.54*	15.09*
14.47	15.03	15.20	15.08	15.24	15.39
15.17*	15.33*	15.50*	15.38*	15.54*	16.09*
15.47	16.03	16.20	16.08	16.24	16.39
16.17*	16.33*	16.50*	16.38*	16.54*	17.09*
16.47	17.03	17.20	17.08	17.24	17.39
17.17*	17.33*	17.50*	17.38*	17.54*	18.09*
17.47	18.03	18.20	18.08	18.24	18.39
18.17*	18.33*	18.50*	18.38*	18.54*	19.09*
18.47	19.03	19.20	19.08	19.24	19.39
19.17*	19.33*	19.50*	19.38*	19.54*	20.09*
19.47	20.03	20.20	20.08	20.24	20.39
20.21/		20.48/	21.08	21.24	21.39
20.47	21.03	21.20	22.07/		22.32/
21.47	22.03	22.20	22.38	22.54	23.09

* Astegunetan
bakarrrik

/ Zerbitzu
berria, egunero

* Astegunetan
bakarrrik

/ Zerbitzu
berria, egunero

Goardiako farmaziak

Otsailak 20, ostirala

E/G: Acha-Orbea, Hipodromo et. 6 Lasarte
G: Chucla, Kardaberaz 48, Hernani

Otsailak 21, larunbata

E: Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
E/G: Rodriggez, Nagusia 42 atzek. Lasarte

Otsailak 22, igandea

E/G: Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Otsailak 23, astelehena

E: Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte
G: Aizpuru, Latxunbe Berri 11 Hernani

Otsailak 24, asteartea

E: Orue, Jaizkibel 2 Lasarte
G: Etxebeste, Elkano 9 Hernani

Otsailak 25, asteazkena

E: De Miguel, Nagusia32 Lasarte
G: Bilbao, Urnieta 7 Hernani

Otsailak 26, osteguna

E: Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte
G: Gorospe R.Arregi 12 Andoain

Otsailak 27, ostirala

E: Gil, Nagusia 24 Lasarte
G: Bulnes, Grupo Etxeberri 1 Hernani

Otsailak 28, larunbata

E: De Miguel, Nagusia32 Lasarte /
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
G: Arzallus, Larramendi 16 Andoain

Otsailak 29, igandea

E: De Miguel, Nagusia32 Lasarte
G: Arzallus, Larramendi 16 Andoain

Martxoak 1, astelehena

E: Acha-Orbea, Hipodromoa 6 Lasarte
G: Correa, Perkaiztegi 8 Hernani

Martxoak 2, asteartea

E: Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte
G: Arzallus, Larramendi 16 Andoain

Martxoak 3, asteazkena

E: Orue, Jaizkibel 2 Lasarte
G: Diaz, Nagusia 19 Andoain

Martxoak 4, osteguna

E: De Miguel, Nagusia32 Lasarte
G: Gorospe R.Arregi 12 Andoain

Martxoak 5, ostirala

E: Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte
G: Elizondo, Zumea 20 Andoain

E:Egunez G:Gauzez E/G:Egunez eta gauzez

2004ko egutegi osoa noaua.com helbidean

Eusko Tren-en neguko autobus ordutegia

Donostia	Urbil	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Urbil	Donostia
07.40		08.05	08.25	06.45	07.05	07.30	
08.00		08.25**		06.45	07.05	07.10	07.30
08.00	08.25	08.35	08.55	07.15	07.35		08.00
08.40		09.05	09.25	07.45	08.05		08.30
09.00	09.20	09.30		07.45	08.05	08.15	08.40
09.00	09.25	09.35	09.55	08.15	08.35		09.00
09.40		10.05	10.25	08.45	09.05		09.30
10.00	10.25	10.35	10.55	08.45	09.05	09.15	09.40
10.40		11.05	11.25		09.30	09.35	10.00
11.00	11.25	11.35	11.55	09.45	10.05		10.30
11.40		12.05	12.25	09.45**	10.05	10.15	10.40
12.00	12.20	12.25**			10.30	10.35	11.00
12.00	12.25	12.35	12.55	10.45	11.05		11.30
12.40		13.05	13.25	10.45	11.05	11.15	11.40
13.00	13.20	13.30		11.45	12.05	12.15	12.40
13.00	13.25	13.35	13.55 #	12.45	13.05		13.30
13.40		14.05	14.25	12.45	13.05	13.15	13.40
14.00	14.20	14.30**			13.30	13.35	13.55*
14.00	14.25	14.35	14.55	13.45	14.05		14.30
14.40		15.05	15.25	13.45	14.05	14.15	14.40
15.00	15.20	15.30			14.30	14.35	15.00
15.00	15.25	15.35	15.55	14.45	15.05		15.30
15.40		16.05	16.25	14.45	15.05	15.15	15.40
16.00	16.25	16.35	16.55		15.30	15.35	15.55*
16.40		17.05	17.25	15.45	16.05		16.30
17.00	17.25	17.35	17.55	15.45	16.05	16.15	16.40
17.40		18.05	18.25		16.30	16.35	17.00
18.00	18.20	18.30		16.45	17.05	17.15	17.40
18.00	18.25	18.35	18.55	17.45	18.05		18.30
18.40		19.05	19.25	17.45	18.05	18.15	18.40
19.00	19.20	19.25**		18.45	19.05		19.30
19.00	19.25	19.35	19.55	18.45	19.05	19.15	19.40
19.40		20.05	20.25		19.30	19.35	20.00
20.00	20.20	20.30		19.45	20.05		20.30
20.00	20.25	20.35	20.55#	19.45	20.05	20.15	20.40
21.00	21.20	21.25	21.45	20.45	21.05	21.15	21.40
21.00	21.25	21.35	21.55	21.15	21.35	21.40	22.00
22.15	22.35	22.45	23.05	21.45	22.05	22.15	22.40
22.00	22.25	22.35	22.55	23.15	23.35		00.00
22.30	22.55	23.05	23.25	01.15	01.35		02.00
00:00		00.25	00.45	03.15	03.35		04.00
02:00		02.25	02.45	05.15	05.35		06.00
04:00		04.25	04.45				
06:00		06.25	06.45				

**Aiaraino # Larunbatetan, Orion
autobus aldaketa Aiaia

*Aiatiak dator Asteburutuan
Soilik Larunbat
larunbata gauzez lanegunetan

Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN

Zubieta-Donostia

7:55*/ 9:30(T)/ 13:15(T)/ 14:35*(T)/ 19:15(T)

Donostia-Zubieta

(Gipuzkoa plazaatik)

7:15* / 9:00/ 12:45(T)/ 13:45*/18:45

LARUNBATETAN

Zubieta-Donostia

8:15(T) / 12:45 / 15:15(T) / 21:35(T)

Donostia-Zubieta

(Gipuzkoa plazaatik)

12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN

Zubieta-Donostia

11:25(T)/ 13:30(T)/ 15:30(T)/ 21:35 (T)

Donostia-Zubieta

(Gipuzkoa plazaatik)

11:00(T)/ 13:00(T)/ 15:00(T)/ 21:00 (T)

* Eskola egunetan
T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

Datorren Noaua!

Martxo

As.	Ar.	Az.	Os.	Ost.	La.	Ig.
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29						

Hurrengo alea ●

Bai esan?

- Udal..... 37 19 51
- Udaltzaingoa 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak..... 37 01 48
- Anbulategia..... 36 20 13
- Udarregi ikastola..... 36 12 16
- Udarregi (Agerialde)..... 36 38 95
- Oiardo kiroldedia..... 37 24 98
- Zumarte 37 15 94
- Etumeta 37 20 01
- Taxi geltokia..... 36 21 78
- D.Y.A. 46 46 22
- Ertzantza..... 112
- Suhiltzaileak..... 112
- Larrialdiak..... 112
- Anbulantziak..... 112
- Gure Pakea..... 37 32 28
- Gure Elkartea..... 37 17 51
- Arrate Egoitza..... 36 63 40
- Eusko Tren 47 09 76
- Noaua! aldizkaria..... 36 03 21
- Bake epaitegia..... 37 23 36
- Oa farmazia..... 37 60 76
- Iturralde farmazia..... 36 33 95
- Zubietako Batzarra..... 37 20 77
- Argindarra (Iberduero) . 47 09 76

Oharrak

ETXEBIZITZA

- Alokairuzko pisu baten bila nabil, Usurbilen edo inguruan, konpartitzeko. 696 993 089.
- Kaxkoan etxebizitza bat salgai. 670 902762.
- Pisua alokatu edo konpartitu nahi nuke. Nirekin harremanetan jartzeko deitu, 647 973 844.
- Pisu bat bilatzen ari naiz, alokatzeko edo konpartitzeko. Oso urgentea da beraz, pisurik alokatzeko baduzu edo gelaren bat, deitu mesedez hainbat arinen 615 71 01 64 telefonora (Gotzon).
- Estudio bat edo apartamendu bat alokatuko nuke. Tf: 677 082 305.
- Alokairuzko etxe baten bila gabiltza. 670 532 443.
- Alokairuan dagoen pisua edo apartamendua erosiko nuke. 943 364469.
- Bost pertsonako familia bat gara eta alokairuan dagoen pisu baten bila gabiltza Usurbil edo inguruko herrietan. 620646769

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Garaje itxiak saltzen ditut Kale Nagusian: 30 m-koa, 18.000 euro. 15 m-koa, 7.800 euro. Telefonoa: 943 37 23 68.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Goizetan etxeko lanak egiteko prest nago. 943 37 64 49.
- Umeak zainduko nituzke, edozein ordutegian. 943 37 10 32.
- Eskolan laguntzarik behar al duzu? Dei iezadazu 943 360 754 (Ana).
- Neska bat eskaintzen da umeak, etxeko lanak edo pertsona helduak zainitzeko. 619 844 556.

- Umeak zainduko nituzke, arratsalde bi orduz. Tf: 647 220 966 (Mari Karmen).
- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zerbituetan, Deitu hona: 652 757 495.

Lan-eskaintzak

- Martxan jartzeko prest dagoen kopia-gintza eta grafika zerbitzuetakoko negozio batetarako sozioak behar dira (neskak nahiago dira). Interesatuak deitu Tf: 687470177.
- Langile bat behar dugu tabernan lan egiteko, larunbata eta igandetarako. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 943 360 217.
- Tabernari bat behar dugu. Deitu telefono hauetara: 943 360 217.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Duela gutxi koilarea galdu nuen Iturralde botikatik kaxkora bidean. Topatu baduzu deitu 943 36 11 15 telefono zenbakira.
- Laguntzaile bat behar da Lasarteko ileapaindegi baterako. 943 37 71 90 / 629 40 21 81.
- Urbilgo bus geltokian argazki marko handi bat tela puska bat "punto de cruz"-ean egina ahaztu genuen. Topatu baduzu deituidazu: 943 37 20 34.
- Urrezko pultsera bat galdu nuen Munalurra auzoan (Olarrondo inguruan). Topatu baduzu deitu 943 36 27 79 telefono zenbakira.
- Zilarrezko brotze bat galdu nuen San Esteban kaletik, okindegia eta supermerkatu bidean. Topatu baduzue deitu 943371237 telefono zenbakira.
- Neska bat eskeintzen da edozein lanetarako. Deitu 943364659 telefono zenbakira. (Arantxa)

Txerrimunik ordainetan



Zorionak Rosalia eta Florentino!

60. ezkon urtemuga ospatu zenuten otsailaren 16an. Zorionak etxekoan partez eta ondo segi!



Zorionak Garazi Andres!

Datorren otsailaren 25ean lau urte egingo dituzu, zorionak eta muxu haundi bat zure guraso eta Ainitze eta Nagore ahizpen partez.



Zorionak Ander eta Ione!

Otsailaren 8an Anderren urtebetetze eguna izan zen. Eta otsailaren 14an, Ionerena. Zorionak bioi eta muxu bat etxekoan partez. Txokolata prestatzen hasi denak zain gaude eta.



Zorionak Jokin! Ez pentsa zure urtebetetzea ahaztu dugunik. Nahiz eta batera ezin ospatu ditugun, gogoan ditugu. Ea lehen bait lehen batera ospatzen ditugun berriro ere, txanpainaz bustiaz. Bitartean, animo eta eutsi goiagi. Euskal presoak etxera!!!

Txerrimunik ordainetan - Oharrak

Doaneko zerbitzuak dira.

Gure bulegora ekarri edo postaz bidali aipatu nahi duzun oharra.

Noaua! Kultur Elkartea - Borda Berri, 3 Eguzkitzaldea 20170 Usurbil
erredakzioa@noaua.com

JAIOTZAK

- **Oihane Moro Zubiria.** 2004ko otsailaren 1ean. Santuenea.
- **Carla Unanue Valero. Kalezar.** 2004ko otsailaren 5ean.
- **Nahia Franco Hernani.** 2004ko otsailaren 6ean. Usurbil.

* Usurbilgo Bake Epaitegiko datuak.

Agenda !

OTSAILAK 20, OSTIRALA

- Udarregiko ikasleen inauteri emanaldia Oiarde Kiroldegian. Goizeko 10:30etan.

OTSAILAK 21, LARUNBATA

- 11:00etan, pilotalekuan, umeentzako jokuak eta tailerrak. 18:30etan, herriko pilotalekuan koadrilen elkartzea eta desfile-aren hasiera.

OTSAILAK 22, IGANDEA

- Angularen Ehorzketa. 19:00etatik aurrera.

KZGUNEA

OTSAILAK 23/27

- Nagusiweb ikastaroa, 16:00-18:00.

OTSAILAK 20, OSTIRALA

- IT Txartelaren azterketa. 11:00-13:00.

1954ko kintoen bazkaria


1954. urtean jaioetakoek, 50 urte beteko dituzten honetan, badute biltzeko aitzakia. Bazkaria antolatu nahi da eta parte hartu nahi duenak deitu dezala Arriaga ile apaindegira: 943 36 66 83 (ordutegia, 08:30-12:30/ 14:00-20:00).

Soluzioa !

	★	D	★	K	★	T	★	E	★
	L	E	Z	A	K	E	★	L	A
	★	J	O	X	E	M	I	E	L
★	M	★	H	A	R	A	N	A	K
★	P	A	R	A	D	A	★	A	T
★	I	★	M	A	M	I	★	I	R
★	B	A	L	A	★	E	N	E	★
★	L	A	K	U	N	T	Z	A	★
★	P	E	Ñ	A	G	A	R	I	K
★	N	O	K	★	K	O	N	I	K

Erantzuna: Joxemiel Penagarikano

Literaturaren txokoa !



Gazteen mundua eleberri arin batean

Hamasei urteko Neska bat da Larraitz: bizia, azkarra, sentibera, jatorra... baina ez da polita, eta horrek min handia ematen dio. Alferrik esango diote "barnea" dela garrantzitsuena, gero inguruko mutil guztiak bere ahizpa Usoaren atzetik baldin badabiltza.



Nobela atsegingarri eta aldi berean mamitsua burutu du berriz ere Fernando Morillok, gazteen mundua eta arazoak islatzeko ohi duen trebeziarekin. Trama arin eta elkarriketaz betea osatu du egileak,

filosofiazko tanta batzuekin hantzen zipriztindua. Bestalde, aipagarria da sexua bezalako gai labainkor bat naturaltasunez lantzeko erakusten duen fintasun eta maisutasuna. Hitz bitan esateko: edozein irakurlek ondo pasatzeko nobela, eta, era berean, gaztearen edukazio sentimental garatzen lagunduko duena.

Fitxa teknikoa:

Titulua: "Eta ni zer?".

Egilea: Fernando Murillo.


Orrialdeak: 140 or.

Salneurria: 8,45 euro.

Egin kontu !

Gaikako bilketa, gero eta errazago

Duela bi urtetik hona, furgoneta berezi bat dabil San Markos Mankomunitateko hamar udalerrietan zehar, sortzen ditugun zenbait hondakin berezi biltzeko.



Zer biltzen da? Sukaldeko olioak, pintura eta disolbatzaileak, erradiografiak, pilak, bateriak, automobiletako olioak, termometroak, aerosol toxikoak (intsektizidak, lakak...), lanparak eta fluoreszenteak, produktu kimikoak dituzten garbikariak (amoniakoa, aguarrasa...), telefono mugikorak, kartutxoak eta tonerak, oihalak.

Hondakinak bereizita eraman behar dira furgonetara, ondoko egutegian agertzen diren egun eta ordutegian:

gian:

- Kaxkoan, hileko hirugarren asteazkenean. 9:00 - 11:00.

- Auzoetan ere, hileko hirugarren asteazkenean. 11:00 - 13:00

- Urbil merkataritza gunean, hileko laugarren larunbatean. 11:00-14:00 / 15:00-19:30.

Honen arabera, **martxoaren 17an, asteazkena**, berriro etorriko da furgoneta gure artera. **Urbila, aldiz, martxoaren 27an.**

IGELTSE ITZ
t
INTU

90 45 11 7 5 35 55
2 1 55 30 3



kutxa
gizarte ekintza


MIKEL
IZ GI E

ELEKT BAT TE

0 1 6, 7
R le

GEZURRA ARI DU

Egunkaria-ren itxleraren kronika



Lorea Agirre

liburua

Ezaugarriak:

Hitzaurrea: Joxe Azurmendi

Hitzatzea: Iñaki Uria

Idazlea: Lorea Agirre

200 argazki koloreetan

200 orrialdetik gora

Formatua: 270 X 215 mm


Otsailaren **20** an



+ 9 €

Euskaldunok behar dugun **berria**

HASI DA AURTENGO TXOTX GARAIA!



Egunero txotxeko sagardoa dastatzeko aukera!

Tel: 943 36 20 49 - 943 36 66 04
Faxa: 943 36 60 73
Arbitzubidea 20.160 ZUBIETA
www.araeta.com

Zain duen aurtengo sagardoa Txotx!



SAIZAR
Sagardotegia

Kalezar Auzoan
LESTAKO
GIPUZKOA
Tel: 943 362 228
www.sidraesaizar.com



TXOTKETIK
eta botiletan
salgai

Urte guztian egunero irekita
astelehenetan ezik.

AGINAGA
SAGARDOTEGIA



Tel: 943 36 67 10 - 37 06 68 AGINAGA

ASTIAZARAN
SAGARDOTEGIA



Zubieta, tel: 943 36 12 29

*Irudi berri bat
denboraldi berri batentzako*

-Igande gauetan itxita

Egin txotx!